

KIROLGI FUNDAZIOA

KUDEAKETA ETA JARDUERA **PROGRAMA**

2023

Donostia, 2022ko abenduaren 20

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- HELBURU ESTRATEGIKOAK

3.- 2023rako JARDUERA PROGRAMA

3.1.- KIROL PROGRAMA

3.1.1.- Taldeei laguntzak

3.1.2.- Kirolariei laguntzak

3.2.- KOMUNIKAZIOA

3.3.- BALIABIDE BILKETA

3.4. BESTEAK

1.- SARRERA

2023rako aurreikuspenen arabera, krisien ondorio ekonomikoei aurre egiteko eta fundazioaren helburuak betetzeko jarduera-ildo guztiak indartu behar dira.

Bestalde, taldekako eta banakako modalitateetan taldeei eta kirolariei laguntzak emateko ekintza-lerroak mantendu egin nahi dira. Banakakoan, 2017an arrakasta osoz ezarritako "Kirolariei Laguntza Egitasmoa"k denboraldi honetan ere jarraipena izango du, eta indartu eta dibertsifikatu egingo dira antzeman diren beharrei erantzuteko.

Alde ekonomikoari dagokionez, aurrekontu-orekari eutsi nahi zaio, 2022. urteari berme osoz aurre egiteko. Gipuzkoako Foru Aldundia suspertze ekonomikoaren buru izango da, eta proiektuan parte-hartze pribatua izatea sustatuko du, izaera berritzaile eta soziala ezarritik. Ildo horretan, txalotzekoa eta eskertzekoa da Kiroldi Fundazioaren babesleek izan duten fideltasuna, eta espero da proiektuarekiko eta gipuzkoar kirolarekiko konpromisoari eutsiko diotela.

Komunikazioa dela eta, esan beharra dago Kiroldi Fundazioak bere baliabideak bideratuko dituela haren presentzia gure lurraldearen eta Gipuzkoako kirolaren gizarte-baloreekin identifikatzeko.

Kiroldi Fundazioak Jarduera Plana aztertuko du honako helburu honekin: bere proiektuaren oinarriari eutsi eta kirol talentuaren bilakaera, epe motzera eta erdira, suspertu, jarduera lerro hauen bitartez.

Hori guztia esanda, segidan jasoko dira Kiroldi Fundazioaren bi jarduera lerroentzat, aurreikusitako jarduera bakoitza, helburuak, laguntzak eta horien hartzaileak arloz arlo sailkatuta.

2.- HELBURU ESTRATEGIKOAK

Kontuan izanda estatutuen premisa, hau da, Kiroldi Fundazioaren helburu nagusia babesle publikoak eta pribatuak erakartzea izango dela Gipuzkoako errendimendu kirolaren garapenerako, 2023rako Kiroldi Fundazioaren zeregina honako hau izango da: "gipuzkoar kirolarien parte-hartzea sustatzea errendimendu altuko kirolean".

Eginkizun hau betetze aldera, eta Gipuzkoako kirol irudi ona mantentzeko borondatez, ildo hauek jarraituko dira:

- Erraztuko da Gipuzkoako kirolak bere helburu eta ezaugarriekin ados dauden lehiaketa mailak zehaztea, bere kirol-, ekonomia- eta gizarte-mailaren arabera.
- Babes berezia jasoko dute modalitate estrategikoek eta lehiaketa kategori gorenetan kirolari gipuzkoarren gehiengoaren parte-hartzea bermatu dezaketen kirol mailek.
- Fundazioak finantzatu dituzten modalitate desberdineko taldeak; proiektu bakoitzaren ekonomia eta kirol jasangarritasunean oinarrituko da, eta faktore estrategikoen arabera irizpide objektiboetan.
- Kirol modalitate bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, lurralde edo eskualde eremutan taldeak eratzten lagunduko da, horrela modalitate horien kohesioa ahalbideratuko da eremu horietan.
- Kirol modalitate bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, estategikotzat hartuko kirol modalitateak haien antolamendua.
- Modu berezian laguntza emango zaie emakumeen goi errendimenduko kirola suspertzea helburu duten proiektuei.
- Goi mailako kirolari gipuzkoarrek hemen jarraitzea eta haiek hona itzultzea sustatuko da.
- Kirolgi Fundazioaren marka indartuko da, bai babesleekiko eta bai gipuzkoar gizartearekiko.
- Kirolgi Fundazioarekin lotutako jardueretan eta lehiaketetan Gipuzkoa Kirolak markaren irudia eta babesleena erabiliko dira, eta goi mailako taldeena eta kirolariena ere bai.

3.- 2023RAKO JARDUERA PROGRAMA

Izaeraren arabera, 2023rako aurreikusitako ekintzak honela bana daitezke:

3.1.- KIROL PROGRAMA

Atala gauzatzeko, 2023rako aurreikusitako jarduera-lerro bakoitzaren barruan, gai hauek aztertuko dira oro har: azalpen orokorra, dohaintza ekonomikoak, hartzaileak eta ekintzen kronograma.

3.1.1.- TALDEEI LAGUNTZAK

3.1.1.1.- Azalpen orokorra

Jarduketa-lerro honen xedea gipuzkoar taldeak maila goreneko nazio eta nazioarteko lehiaketa ofizialetan mantentzea izango da, laguntza ekonomikoaren bitartez, edo, hala erabakiz gero, dagokion modalitatearen kirol maila gorenean.

Zentzu honetan, eta gehiegi sakondu gabe, denboraldi honetan taldeentzako laguntzak egokituko dira, eta hala badagokio, dohaintza horiek ezarritako irizpideetara egokituko dira.

Aldi berean, hartzekodun taldeak hautatzeko irizpideak arautuko dira eta baztertzeko mekanismoak ere bai, ezarriko diren faktore estrategikoen arabera.

Kirol ikusgarriekin lotura duten taldeekin komunikazio harremanak sendotuko ditu Kirolgi Fundazioak, babesleekin hartutako konpromisoak betetzearren; adibidez; Real Sociedad de Fútbol SAD, eta abar.

Azkenik, Kirolgi Fundazioaren ekarpenak taldeentzako ohiko aldizkakotasuna mantenduko dute.

3.1.1.2.- Ekarpen ekonomikoa

Fundazioaren Estatutuetan lehenetsun osoa ematen zaio jarduketa-lerro honi, besteen kalterako. Arrazoi hau dela eta, 2023rako aurreikusten da 3.005.400 euro bideratuko direla jardukera-lerro honetara.

2023 ekitaldian zehar litekeena da Kirolgi Fundazioarekin lotutako talde zehatz batzuk europar lehiaketetan jokatu ahal izatea; horregatik, ez da baztertu behar sailkatzea lortzen duten taldeen parte-hartze gastuak ordaintzeko erabakia hartzea.

3.1.1.3.- Hartzaileak

Fundazioaren laguntza ekonomikoen onuradun talde hauek izan litekez:

Taldea	Kirola	Maila
Gros Xake Taldea	Xake mistoa	Ohorezko maila
ATSS	Emak. Atletismoa	Ohorezko maila
Super Amara BAT	Emak. Atletismoa	Ohorezko maila
Real Sociedad de Futbol	Gizon. Atletismoa	Ohorezko maila
IDK Gipuzkoa	Emak. Saskibaloia	Emak. Liga
Iraurgi SB	Emak. Saskibaloia	Emak. 2.Liga
Juaristi ISB	Gizon. Saskibaloia	LEB Oro
GBC	Gizon. Saskibaloia	LEB Oro
Salto Bera Bera	Egok. Saskibaloia mistoa	1º Maila
Bera Bera	Emak. Eskubaloia	Ohorezko maila
Aiala Zarautz	Emak. Eskubaloia	1º Maila
CD Bidasoa	Gizon. Eskubaloia	ASOBAL
Amenabar Zarautz KE	Gizon. Eskubaloia	Ohorez. B maila
Gipuzkoa-Ogiberri	Emak. Txirrindularitza	Sub 23 - elite
CH Txuri Berri	Curling mistoa	Ohorezko maila
Real Sociedad de Futbol	Emak. Futbola	Iberdrola Liga
Lauburu KE Ibarra	Gizon. Areto Futbola	2º Maila "B"
CHH Txuri Urdin	Emak Izotz hockeya	Ohorezko maila
CHH Txuri Urdin	Giz. Izotz hockeya	Ohorezko maila
Real Sociedad de Futbol	Emak Belar hockeya	Ohorezko maila
ATSS	Giz Belar hockeya	1º Maila
Bidasoa XXI	Emak Igeriketa	Ohorezko maila
Bidasoa XXI	Giz. Igeriketa	Ohorezko maila
Ordizia KE	Giz. Errugbia	Ohorezko maila
Eibar Rugby Taldea	Emak. Errugbia	Ohorezko maila
Ibarra SE	Emak. Sokatira	Euskal Liga
Ibarra SE	Giz. Sokatira	Euskal Liga
Mutriku SE	Giz. Sokatira	Euskal Liga
Leka Enea TM	Emak Mahai tenisa	Ohorezko maila
Leka Enea TM	Giz. Mahai tenisa	Ohorezko maila

3.1.1.4.- Kronograma

EKINTZAK	DATAK
<i>Sinadurak eta 2023ko 1. ordainketak</i>	<i>2023ko otsaila</i>
<i>2023ko 2.ordainketak</i>	<i>2023ko ekaina</i>
<i>2023-2024ko aurrekontuak eta 2022-2023 balantzeak</i>	<i>2023ko ekaina</i>
<i>2024ko diru laguntza-plana</i>	<i>2023ko uztaila</i>
<i>2023ko 3.ordainketak</i>	<i>2023ko urria</i>

3.1.2.- KIROLARIEI LAGUNTZAK

3.1.2.1.- Azalpen orokorra

Jarduketa-lerro honen bitartez Gipuzkoako maila handieneko kirolari multzoaren kirol-kalitatearen hobekuntza bultzatu nahi da, bere lehiakortasun gaitasuna handituz teknifikazio eta laguntza ekonomikoen bidez, gipuzkoarrak ez diren taldeetara ihes egitea saihesteko, eta beraien itzulera lortzeko.

EHU/UPVko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean (Tecnun), Mondragon Unibertsitatean eta UNED Bergara Ikastetxe Elkartuan matrikulatutako kirolarien formazio akademikoa ere bultzatu nahi da, ikasketa-poltsen bitartez.

Era berean, "Kirolarientzat Laguntza Programa" gauzatuko da zerbitzu-sorta batekin (fisioterapia, elikadura eta abar), kirolarientzat euskarri izango dena, bai beraien kirol ibilbidean zehar eta bai ondoren.

Programa hau zabaldu eta indartu egin beharko da nahitaez, kirolarien kolektiboan sorturiko zerbitzu-eskaria dela eta. Era berean, jarduketra dibertsifikatu egingo da hiru alderditan:

- Kirolarien formazioa eskumenetan.
- Talentudunen garapenean parte hartzen duten teknikarien formazioa.
- Kirolariei laguntzea beren bizi-proiektuetan, behin erretiratu ondoren.

Eskaera guztiak banan-banan artatuko dira, ahalik eta kirolari gehienekin elkarlanean aritzeko eta laguntzeko, Kirolgi Fundazioarekin lotura mantendu ala ez.

Kirolgi Fundazioak diru laguntzak ematea harreman estua mantentzeko erabiliko du, babesleekin hartutako irudi konpromisoak betetzeko helburuarekin.

3.1.2.2.- Ekarpen ekonomikoa

Ezarritako helburuak betetzeko 330.00 euro da aurreikusitako kopurua.

3.1.2.3.- Hartzaileak

Iragan denboraldiko datuak kontutan hartuta, banakako eta taldekako 150 kirolari onuradun izango direla aurreikusten da.

3.1.2.4.- Kronograma

EKINTZAK	DATAK
<i>Oinarriko aurkezpena</i>	<i>2023ko otsaila</i>
<i>Eskaerak</i>	<i>2023ko martxoa</i>
<i>Balorazioa eta diru laguntzak</i>	<i>2023ko apirila</i>

3.2.- EKITALDIAK ANTOLATZEA

Kirolgi Fundazioak Gipuzkoako kirol sistema suspertzen lagunduko duen kirol ekitaldi bat antolatzeko helburuari eutsiko dio.

Ildo horretan, fundazioak badaki emakumeak protagonista dituzten kirol lehiaketek genero estereotipoak apurtzea bultzatzen dutela, eta estereotipo horiek gizartean ikusaraztea eta aitortzea sustatzen dutela.

Kontzeptu esparru horretan, Kirolgi Fundazioak kirol ekitaldi bat antolatzea lurraldeko kirol-jarduera bultzatuko duen elementu eragilea izan daiteke.

Halaber, kirolarekin, teknologia berriekin eta kirol medikuntzarekin zerikusia duten beste gai batzuetan antola daitekeen ekitaldiarekin paraleloan jarduerak egitea aurreikusten da, baita Gipuzkoako klubetako teknikarien kidegoentzako prestakuntza saioak ere.

3.3.- PLAN BEREZIAK

Kirolgi Fundazioak Kirol Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan jardungo du, kirol-sistemari eusteko talka-planak gauzatzeko.

3.4.- KOMUNIKAZIOA

Adierazi behar da lehenetsunezkotzat jo dela Kiroldi Fundazioaren presentzia soziala indartzen lagunduko duten hainbat ekintza aurreikusten dituen estrategia bat mantentzea.

2023an komunikazioa egokitu nahi da, kasu bakoitzean euskarri hoberenak aurkitzeko eta babes kontratuak eta enpresen eta entitate laguntzaileen korporazio erantzukizun soziala gizarteratzeko.

Kiroldi Fundazioaren eta oraingo eta etorkizuneko babesleen arteko harremana indartu nahi da, fundazioaren eta enpresen arteko lankidetzaren publiko pribatuari mesede egingo dion bilgune espazioak sortuz.

“GIPUZKOA KIROLAK” markaren proiektioa ere sustatu nahi da, ekintzen eta kirolarien bidez.

3.5.- BALIABIDEEN BILKETA

Atal honetan helburua da gipuzkoar kirolean ekosistema bat sortzea, klubak, kirolarien eta enpresen arteko loturak gero eta handiagoak eta hobeak izan daitezen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan errendimendu kirola ekonomikoki iraunkor bihurtzeko helburuarekin.

Helburu honek enpresaren eta kirolaren interesen bateratasuna suspertu nahi du, enpresa babesleak eta laguntzaileak inplikatzeko komunitatea sortuz, enpresen ekintza desberdinetan eta alderantziz, elkarrenganako onura bat bilatzeko.

Ildo horretan, enpresaren eta kirolaren arteko harremanak sendotzen lagunduko duten kirol eta prestakuntza-jarduerak sustatuko dira.

3.6.- BESTEAK

Azkenik, komeni da esatea 2023an zehar publikitate babes kontratuari buruzko informazioa ematen jarraituko dela, eskatzen duten kirol entitate eta enpresei.

Gipuzkoako Argazkilari Elkartearekin lankidetzan “Kiroldi Fundazioa” Kirol Argazkien Lehiaketaren jarraipena ere baloratuko da, hogeita batgarren edizioa egin eta gero.

Sarreraren aipatu den bezala, aurreikuspenetan ziurgabetasun handia dago. Ildo horretan, Kiroldi Fundazioaren esku hartzea aurreikusten da, Kirol Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta, kirol jardueraren garrantzitsuak antolatze eta Gipuzkoako kirol sistemari eusteko plan bereziak gauzatzeko.